



Arartekoaren 2017S-2367-16 Ebazpena, 2017ko uztailaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio bat-bateko egoera ekonomiko larrian errenta berezia aplikatzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa onartu zuen izapidetzeko. Herritarrak desadostasuna adierazi zuen, Alokabidek ukatu baitzion hileko errentaren zenbatekoa aldatzeko eskaera.
2. Kexagileak, alokairu-araubidean dagoen babes ofizialeko etxebizitza baten errentariak, 2016ko irailean errentaren zenbatekoa murrizteko eskatu zuen, ordaindu ezin zuelako.
Kexa-idazkian, herritarrak arrazoitu zuen sozietate publikoak Lanbidek ordaindu behar ez zituen zenbatekoak aintzat hartuz kalkulatu zuela errentaren zenbatekoa. Hain zuzen ere, adierazi zuen 2015eko azaroaren amaieran lan-jarduera bat hasi zuela eta lanean jardun zuen 2016ko maiatzera arte. Diru-sarrera berriak behin baino gehiagotan Lanbideri jakinarazi arren, erakunde horrek jarraitu zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa ordaintzen.

Ondorioz, Alokabidek hileko alokairu-errenta igotzea erabaki du, 248,50 eurotik 391,72 eurora, laneko diru-sarrerak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa aintzat hartu dituelako.

Hala ere, kexagilea ez dago ados Alokabidek egindako kalkuluarekin, Lanbidek jaso behar ez ziren zenbatekoak itzultzeko ebazpena eman duelako.

Gauzak horrela, kexagileak, lan-kontratua amaitzen denean, jasoko duen diru-sarrerak bermatzeko errentatik hileko 100 euro itzuli beharko du, zorra itzuli arte. Gainera, 391,72 euroko hileko errenta ordaindu beharko du.

3. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Idazkian, diru-sarreraren igoeraren jatorriari eta horiek itzultzeko eskaerari buruzko iritzia azaldu zuen.

Azkenik, erabakia hartu aurretik, hainbat gogoeta helarazi zituen Arartekoak, egoera ekonomiko larrian geratzen diren errentarien alokairuak kalkulatzeko jarraibidea aplikatzearen inguruan.

4. Lankidetzan aritzeko eskaerari erantzunez, 2017ko apirilaren 27an, txosten bat jaso zen erakunde honen erregistroan. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako





Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere argudioak azaldu zituen, hileko errentaren zenbatekoa aldatzeko eskaera ukatzeko erabakiari eutsiz.

5. Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Alokabidek kexagilearen hileko errenta aldatzea erabaki zuen. Izan ere, 2016ko uztailetik aurrera, kexagilea 391,72 euro ordaintzen hasi zen, 248,50 euroren orde, Alokabideren ustez, bere urteko diru-sarrerak 15.668,62 euro zirelako.

Hala ere, kexagileak errenta ordaindu ezin zuenez, hura aldatzeko eta errenta berezia aplikatzeko eskaera aurkeztu zuen.

Horri dagokionez, «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 13ko 466/2013 Dekretuaren 14. artikulua honako hau ezartzen du errentaren inguruan:

"Hasiara batean, etxebizitzaren urteko errenta pertsona errentariaren edo bizikidetzaren unitate errentariaren urteko diru-sarrera haztatuen % 30 izango da, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudiaren arabera kalkulaturik, 450 euro gehienez."

Hala ere, ekonomia-krisiaren ondorioz errentariaren baliabideak murriztu egiten direnean sortzen diren bat-bateko egoera larriei erantzuteko, sailak abenduaren 12ko 2/2013 jarraibidea onartu zuen.

Zentzu berean, jarraibideak, besteak beste, honako baldintza hau betetzea eskatzen du, errenta berezia delakoa aplikatzeko:

"Diru-sarrerak murriztearen arrazoia ez dadin izan, baldintzak bete ez izanagatik herri-administrazioen eskutik jasotzen den edozein laguntza, diru-laguntza edo prestazio itzultzeko betebeharra".

Horiek horrela, 2016ko urriaren 18an, Alokabidek errentaren zenbatekoa aldatzeko eskaera ukatzea erabaki zuen. Honako hau da ebazpenean ageri den arrazoia:

"Eginbeharrak ez betetzeagatik modu okerrean jasotako kobrantzak itzultzeke edukitzea beste herri-administrazioen batekin".

2. Alokabidek betebeharra ez betetzea aipatu zuen eskaera ukatzeko ebazpenean. Arartekoak, berriz, esan zuen kexagileak epean bete zituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateari atxikitako betebeharrak.





Horretarako, lankidetzeta-eskaeran aipatu zenez, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak zati batean aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19 f) artikulua ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek honako betebeharrak izan behar dutela:

"Lege honetan ezarritakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen gertaerak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean".

Ilido berean, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1 f.2 artikulua gertaerak hamabost egutegi-eguneko epean –gertatu den egunetik hasita– jakinarazi behar direla ezartzen du:

"Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat erabili diren baliabideak ukitzen dituzten gertakariak, hala nola:

–Hileroko diru-sarreraren motan edo zenbatekoan izandako aldaketak, eta ondare-gehikuntzak edo -murrizketak".

3. Are gehiago, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 41.2 artikulua xedatzen du Lanbidek automatikoki aldatuko dituela diru-sarrerak bermatzeko errentari dagozkion zenbatekoak, prestazioa kalkulatzeko oinarri erabilitako diru-sarreretan izandako aldaketen ondorioz bada.

Lanbidek izapidetzen dituen espedienteen kopuru handia dela eta, ezinezkoa da aldaketa kasu guztietan automatikoki egitea. Hori dela eta, Lanbidek 1/2015 Zirkularra onartu zuen. Barne-jarraibide horrek, zorra zatika ordaintzea eta kasu berezietan kuota soziala aplikatzea ahalbidetzez gain, zorra sortzean Lanbidek erantzukizuna izan duela dio, honako kasu honetan:

"Si se trata de un supuesto en el que concurre la responsabilidad de Lanbide en la generación de la deuda, porque las cantidades indebidamente percibidas a devolver derivan de la tramitación de una modificación con incidencia económica comunicada a Lanbide en plazo, realizada por este organismo autónomo, en un plazo superior a dos meses desde la comunicación, podrán reintegrar la deuda de forma fraccionada".

Hitz batez, Arartekoaren iritziz, kexagilearen hileko errenta kalkulatzeko oinarri hartutako diru-sarrerak justifikatu gabe igotzea eta jaso behar ez ziren zenbatekoak itzultzeko beharra ez dira kexagileari egozteko modukoak.

Arartekoak ahaleginak egin ditu sail horri funtsezko desberdintasun batzuk helarazteko, hain zuzen ere, honako hauen artean: alde batetik, jaso behar ez ziren prestazioak sortzea dago –titularrak baldintza bat galdu edo dagozkion





betebehar bat bete ez duelako–; eta bestetik, Lanbideren jardueran orekarik eza dela eta zenbatekoen epea ez egokitzea.

4. Hala ere, sailak txosten xehea bidali zuen, egindako jarduketak azaltzeko, eta bere irizpideari eutsiko ziola jakinarazi zion erakunde honi, honako arrazoi hau dela medio:

“Errenta berezi baten eskatzaileek diru-sarrereren murrizketa bidegabe jasotako zenbateko jakin batzuk itzultzeko betebeharrean oinarritzen dutenean – betebehar hori bidegabeko ordainketa bati, baldintzak ez betetzeari edo Lanbideren kudeaketa okerrari dagokion alde batera utzita–, berriz ere diogu, ukatu beharra dago errenta berezia”.

5. Espedientean jasotako dokumentazioaren arabera, behar bezala egiaztatu da kexagileak lan-jarduera ordaindua hasi izana jakinarazi zuela, 2015eko abenduaren 3an, Mungiako Lanbide bulegoan. Horretarako, jakinarazpena egiteaz gain, azaroaren 27an sinatutako lan-kontratuaren kopia bat aurkeztu zuen.

Era berean, 2015eko abenduaren 11n, berriz jo zuen Lanbide bulegora eta nomina bat aurkeztu zuen, jasotako diru-sarrereren berri emateko. Hala ere, Lanbidek jarraitu zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa ordaintzen.

Horrexegatik, hain zuzen ere, 2016ko urtarrilaren 25ean, kexagilea hirugarren aldiz agertu zen dagokion Lanbide bulegoan eta esanbidez eskatu zuen *“diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko”*. Azkenik, lan-kontratuaren kopia bat entregatu zuen.

Azaldutako guztia gorabehera, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa ordaindu zuen 2015eko abenduan eta 2016ko urtarrilean; azkenean, 2016ko uztailaren 1ean, kexagileak 1.761,75 euro itzuli behar zuela erabaki zuen.

6. Arartekoaren iritziz, nahiko ondo egiaztatu da kexagileak bete egin zuela lan-jarduera hasi izana jakinarazteko betebeharra. Hain zuzen ere, jakinarazpena hiru aldiz egin zen, baina Lanbidek ez zuen jardun.

Ondorioz, jaso behar ez ziren zenbatekoak itzultzeko beharra ebazteko arrazoiak ez du zerikusirik diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari egotz dakiokeen betebehar bat ez betetzearekin, baizik eta Lanbidek lan-jarduera hasi izanari buruzko jakinarazpena jaso ondoren espediente berrikusi ez izana da arrazoa.

Hortaz, ez da zentzuduna bere betebeharrak bete dituen herritarra Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientearen berrikuspena atzeratu duelako kaltetzea.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari honako iradokizun hau egin nahi dio:

IRADOKIZUNA

Azaldutakoan ildotik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezan hileko errentaren zenbatekoa aldatzeko eskaera ukatzeko ebazpena.

Ondorioz, kexagileak gainerako baldintzak betetzen baditu, errenta berezia ordaintzeko eskubidea onar diezaion, bat-bateko kausa baten ondorioz egoera ekonomiko larrian dagoela egiaztatu delako.

